

Herritar ugari Aste Santuko ospakizunetan

Eguraldia zela eta, Ostiral Santuko Gurutze bideak bertan behera gelditu ziren

Aste Santuko oporraldi haue-
tan, batzuk kanpora joan dira
eta beste batzuk, berriz, herrian
gelditu gara, herria zaintzen.

Bertan gelditu direnen
artean jende ugariak parte
hartu du Lasarte-Oriako eliza
ezberdinetan burutu diren
ospakizunetan.

Ospakizun nagusienak
ostegun Santu egunean hasi
eta larunbat Santu egunean
bukatu ziren.

Ostegun Santuko Meza
Nagusiak Jesusek apostolue-
kin ospaturiko azken afaria
ekartzen digu gogora; Ostiral
Santu egunean berriz Jesusen
pasioa eta larunbat Santu
egunean Jesusen berpizkun-
dea ospatzen dira.

Ospakizun guzti hauek
S.Pedroko parrokian, Arantzazu-
ko Amaren parrokian eta
Brigitarren komentuan ospatu
dira.

Bertan behera

Eguraldiak beti bezala bere

protagonismoa nahi izaten du
eta oraingoan ere horrela
izan da.

Ostegun Santuan eta Pazko
astelehenean eguraldi bikaina
egin zuen arren, ostiralean irra-
garpenez zioten bezala, euria
nagusi izan zen egun guztian.

Hori dela eta, gure herrian
ohitura handikoak diren Kal-
bario bideko eta Azkorte-
ko Gurutze bideak bertan behera
gelditu ziren.

Hala ere, eliztarrak ez
ziren Gurutze bideko otoitzik
gabe gelditu. Izan ere, bai San
Pedro elizan, baita Arantzazu-
ko Amaren elizan ere Gurutze
bideak eliz barruan ospatu
baitziren.

Ostiral Santu eguneko
Gurutze bidean Jesusen
heriotzagatik egin zen otoitz
eta larunbat gauean eta
Pazko igandean Jesusen per-
pizkundearengatik. Pazko
igandean urte liturgikoko
lehenengo bataioak ere ospa-
tu ziren. •



San Pedroko eliztar ugari bildu zen Ostiral Santu goizean Kalbario biderako Gurutze bidea egitera.



Baina, eguraldi kaxkarra zela eta, bai San Pedro elizakoak, baita Arantzazukoak ere elizan bertan egin behar izan zuten.



Lasarte-Oriako
XI. Jardunaldi
Internazionalistak
bihar jarriko dira
martxan /3

KIROLA | 6

Herriarteko
Txapelketako
lehenengo
kanporaketa
gaur du
Lasarte-Oriak




Etorkizuneko
Lasarte-Oria
erakusgai Udalak
egindako maketa
birtualean /4-5



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278



SUGATE
Sukaldeak

vegasa
Beti lehenengo egunean bezala



DESKONTU BEREZIAK
%20 desk. modelo desberdinetan

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

MARKATUKO PREZIO HOBERENAK !!

Pintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA • www.sugate.net

Zorion-agurrak



Maialen

Zorionak politta zure bigarren urbetebetzean familia osoaren partetik. Muxu handi bat.



Iraia

Zorionak printzesa, bi muxu potolo Leire, amatxo eta aita txoren partetik.




Irati

Zorionak maitia zure lehen urbetebetzean! Muxu handi bat; aita-txo eta amatxo.



Atenea

Zorionak Atenea. Musu erraldoia Oihaneren partetik.



Aitona eta amona

Zorionak aitona eta amona zuen urbetetze egunetan, muxu handi bat!



Ana

Zorionak Ana 18 muxu handi Jokin eta Zumasen partetik.



Nahia

Zorionak Nahia eta amona Doloresi, familian partetik eta muxu handi bat.




Amaiur eta Amaia

Zorionak sorgiñak zuen lehenengo urbetetzearengatik! Guraso eta gurasoen lagunen partetik!!



Amaiur

Zorionak Lasarteko eta Herrerako aiton-amonen partetik. Muxu potolo bat.



Sara

Zorionak gurasoen partetik. Askota maite zaitugu. Txokolatetzeko muxu potolo bat.



Hugo

Zorionak Carmina amonaren partetik. Muxuak.

Guardiak

Ostrala, 17

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Larunbata, 18

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 19

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 20

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 21

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 22

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 23

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Jaiotzak

Araia Mayordomo Macias,
apirilaren 9an

Diego Rodriguez Rosario,
apirilaren 6an.

Narua Ugarteburu Candela,
apirilaren 5ean.

Leire Avila Irisarri,
apirilaren 3an.

Heriotzak

Francisca Sanchez Ruiz,
apirilaren 9an 88 urte zituela.

M^a Angeles Villaron Casas,
apirilaren 9an 77 urte zituela.

Candelas Casado Rayuela,
apirilaren 7an 101 urte zituela.

Isabel Marcos Barroso,
apirilaren 3an 87 urte zituela.

Lucia Sanchez Vallejo,
apirilaren 2an 94 urte zituela.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Lasarte-Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Ezcaray-en duplex bat saltzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago. la berria. Tel.: 652 774679

• Ezcaray-en duplex bat alokatzen da. Igerilekua daukan urbanizazioan dago, oso paraje ederrean. 3 logela ditu. Tel.: 676 910 566.

• Gela alokatzen da Lasarte-Oriako etxebizitza batean. Tel.: 600 612 085

Salerosketak

• Mobil home bat saltzen dugu. 11x4 metro, berria eta luxuzkoa. Lizarrako kanpingean partzela pribatua. 87.300 euro. Harremanetarako zenbakia, 658 089 380.

• Renault espace bat saltzen dut. 2004 urtekoa, 110.000 km, diesel, ondo zaindua, 7 pertsonentzako, beraztertua eta bermarekin. 12000 euro. Harremanetarako mikelponga@hotmail.com

• Salgai haurra eramateko kotxea eta auklia. Jane Nomad markakoa da. Egoera onean. Tel.: 687 965454.

Lan-eskariak

• Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Tel: 693 60 12 22

• Bigi garbituak eskaintzen da garbiketa lanak egiteko (alfonbrak, etxeak, bulegoak...) prest. Deitu konpromezurik gabe. Tel.: 638 944 604 eta 695708271.

• Geriatria laguntzailea esperientziaduna eskaintzen da pertsona indibidual eta haurrak zaintzeko. Etxeko gauzak egiteko prest. Goizeko 09:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte. Tel.: 620 646769

• Emakume bat eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko edo atariak garbitzeko. Tel.: 680 581 914.

• Frantseseko klaseak ematen dira. Eskarmentua haur eta helduekin. Tel.: 680 581 914.

• Emakume bat eskaintzen da eguerditan garbiketa lanak egiteko (bulegoak, etxeak, tabernak). Tel.: 667 272 880.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com • www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com



Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

www.gipuzkoangazte.info

Film Laburren Lehiaketa

1 Ekin film laburren lehiaketa *Gipuzkoa 09* lehiaketa honek gazteengan izaera ekintzailea piztu nahi du. Ekintzailetza hobesten duten film laburrak nahi dituzte. Helburua ekintzailetzarekin lotutako balioak transmititzea da, hala nola, ekimena, arrisku-hartzea, sormena, talde lana... Istorioiko saioakera arrakastan edo porrotean

amaitzen den da gutxienekoa. Askoren artean eginko film laburrak bereziki baloratuko dira. Izena emateko epea apirilaren 21ean bukatzen da. Saria 500, 300 eta 200 eurokoak instituzio bakoitzeko irabazleentzat (guztira 15) .Informazio gehiago 943018395 / 943018421 tel. zenbakietan. Lanak helbide honetara bidali beharko dira dekinfilm@gaztekinzale.net.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

XI. Jardunaldi Internazionalistek Palestina eta Afrika aztergai

■ Era berean, Kubako iraultza komunistaren 50. urteurrena ospatuko dute

TXINTXARRI

Bihar hasi eta apirilaren 25a arte iraungo dute XI. Jardunaldi Internazionalistak. Hala azaldu zuten prentsurrekoan, asteazkenean Komite Internazionalistak eta Askapena taldeko kideek.

“Hamaika urte dira jarraian, ez dugu kalerik egin eta Lasarte-Orian jardunaldiak sendotzea lortu dugula uste dugu”, adierazi zuten antolatzaileek, “hau ez da antolatzaileen esker bakarrik, herriko taldeek ere errua dute. Guztiei eskerrak.”

Kuba, Afrika eta Palestina

Aurten Kubaren 50. urteurrena ospatu nahi izan dute antolatzaileek eta honela kartela Kubaren omenez egin dute.

Gainera, biharko hasiera ekitaldia festa kubatarra izango da. Honen, ostean, 22:30ean, Jalgi Kafe antzokian Makuluku-Ken talde lasarteoriatarren erritmo beroak entzuteko aukera egongo da.

Astelehena eta asteartean arratsaldeko 19:30ean, hitzaldiak antolatu dira Manuel Lekuona Kultur etxean.

Astelehenean, hitzaldi arotora hurbiltzen den orok Palestinako egungo egoerari buruz jakiteko aukera izango du, bertan brigadista lanetan egon den



Komite Internazionalistek eta Askapeneko kideek Kubaren iraultzaren omenez egin dute aurtengo kartela.

Fernando Garateri esker.

Asteartean, berriz, *Rep. Dem. Congo: Guerra y recursos naturales* hitzaldian Kongoko egoera aztertuko da. “Era honetara, Afrikako herrialde desberdinek dituzten arazoak pixkanaka ezagutu arazi nahi ditugu,” aipatu zuten antolatzaileek.

Horregatik, ostegunean Afrikako beste herrialde bat aztertuko da, Sahara. Xirimiri Elkartearen 19:30etan *Saharatik garrasia* dokumentala ikusiko da eta ostean, solasaldia egingo da dastatzen den bitartean.

Antolatzaileek esandakoa araberak, “Saharako gatazkako errealitatea osoa ikusteko balio du, kanpamenduetako eta lurralde askatu, zein okupatuetako herritarren errealitatea islatzen baita.”

Eta, ohitura denez, Jardunaldiei bukaera era ezin hobean emateko afari herrikoia egingo da Xirimiri Elkartearen apirilaren 25ean, larunbata.

Txartelak 15 euro balio ditu eta menua entsalada mistoa, basurdea eta postre kamerundarra osatua egongo da. Hauek, Jalgin eta Xirimirir aur-

kitu ahalko dira hurrengo astean.

Erakusketa eta zinema

Honetaz gain, astean zehar Jalgi Kafe antzokian argazki erakusketa egongo da, *Beste aldetiko begiradak*.

Enrique Pimoulier argazkilaria indigenen begiradak aurkezten dizkigu, batzuetan zuzenean eta besteetan lanean ari direla.

Era berean, osteguna 23an, Okendo Zinema Taldeak *Che: El Argentino* filma eskainiko du XI. Jardunaldiekin bat eginez. •

2. MAKETA LEHIAKETA Partehartze handia eta nazioartekoa

83 parte-hartzaile aurkeztu dira Gazteria eta Festetako sailak maketen bigarren edizioa. lehenengo edizioan 24 taldek parte hartu zuten, beraz, izandako harrerak erakusten duenez, lehiaketak sendotzeko eta finkatzeko bidea darama.

Lehiakideen artean Lasarte-Oriako bost talde daude eta Eusko Autonomi Erkidegoko 15. Granada, Sevilla, Valentzia, Madril, Bartzelona, Las Palmas, Zaragoza eta Murrtziako artistak ere aurkeztu dira eta nazioarteko ordezkariak ere baditu lehiaketak, izan ere, Santiago de Chile eta Buenos Airesko bi talde aurkeztu baitira.

Berrikuntza moduan, Gazteria eta Festetako sailak Facebook bezalako gizarte-sareen bidez iragarri du ekimena, baita musikan espezializatutako orrialdeetan ere.

Orain epaimahaia batu eta sariak banatzea besterik ez da geratzen. Maketarik onenak 1.000 eurotako saria jasoko du metalikoan eta 700 eurotako Lasarte-Oria saria ere emango du. Antolatzaileek azaldu dutenez, maketa berdina ezinon ditiu bi sariak jaso. Eta, honetaz gain, bi irabazleek San Pedro jaietan kontzertua eskaintzeko aukera izango dute. •

VIII. GARAGARDO AZOKA Kartel lehiaketa martxan da

Buruntz-Azpi elkarteak VIII. Garagardo Azoka antolatuko du maiatzak 14 eta 17aren bitartean. Baina, urtero legez, motorrak martxan jartzeko azokako kartel lehiaketa burutuko da lehenengo.

Lehiaketako baldintzak elkarteak www.buruntz-azpi.com web orrialdean eskuratu ahal ditzakezue.

Dagoeneko aurkeztu daitetzke ideiak eta Buruntz-Azpi elkartearen, Basaundi Bailerako 9. zerbakian, aurkeztu behar dira apirilaren 24ko 20:00ak baino lehen.

Irabazleak 300 euro eta bi pertsonentzako afaria eskuratu ditiu eta partehartzaile guztiek bi pertsonentzako gonbata eskuratu dute azokan bertan afaltzeko.

Kartel irabazlea azokako hasiera ekitaldian jakitera emango da.

Informazio gehiago eskuratzeko web orrialdera jo edo Buruntz-Azpi elkartera bertara hurbildu eta azokako arduradunarekin harremanetan jartzea besterik ez duzue. •

Presoen dispersioaren aurka

20 urte dira Estatuak preso politikoaren dispersioaren neurria hartu zuenetik. Urtemuga hori gogora ekarri eta presoen eta iheslarien egoera salatzen hainbat ekitaldi antolatu ditu Etxeretek Euskal Herria osoan asteburu honetarako. Lasarte-Orian ere isla izango du salaketa horrek.

Bihar eguerdi aldera izango da. 11:00etan kotxe karabana burutuko da Hipodromoko aparkalekutik aterata; 12:00etan Teresategin Argi eta Iñakiren monolitoan omenaldi egingo zaie dispersioaren erruz hil diren senideei eta 13:00etan elkarretaratzea egingo da udaletxe aurrean. •



Argi eta Iñakiren urteurrenean omenaldi xumea egin zitzairen.

Hortera eguna Oriako frontoian

Gaur arratsaldean Multimuskala elkarteak antolatuta Hortera eguna ospatuko da Lasarte-Orian.

18:30etan hasi eta ordu txikiak arte, kalejira, afari herrikoia eta musika kontzertuak egongo dira Oriako pilotalekuan. Eta, gainera, ahal duzuen horteroen janzteko aukera duzue.

Egitaraua

Honela, arestian esan bezala, 18:30ean hasiko da festa. Horteroen kalejira erdigunetik abiatuko da ordu horretan eta poteoa egingo da Zumaburun Oriara bidean.

Pilotalekura iristean indarrak berreskuratzen txanda izango da eta hortetarako prest izango dute afari informala.

Afari ostean, kontzertuek gozatzeko aukera egongo da. Bartzelonatik datorren Raganath taldearen eskutik rumba

eta Brasilgo salta nahiz meringe doinuak entzun ahal izango dituzte pilotalekura hurbiltzen direnek.

Eta doinu gogoragoak gustuko dituztenentzat Aurka eta Despericio herritarrek ere eskainiko dituzte abesti batzuk.

Ondoren, Hortera Guateke antolatu dute eta bertan, besteak beste, Miss eta Mister Hortero aukeratu dira edo karaokean abesteko aukera izango da ia egunsentira arte.

Multimusikalerako dirua

Honen guztiaren helburua, abenduan ospatuko den Multimuskala antolatzeko dirua biltzea da.

Beraz, ez huts egin. Utzi lotsa alde batera eta atera armairutik gurasoen jantzi zaharrak edo inoz janzten ez duzun alkandora edo gona. Multimuskalaren alde, izan zaitetz hortero egun batez!!! •

Kiroletako agenda

FUTBOLA I

Larunbata 18

10:00etan, Ostadar-Ordizia (Infantil Txiki Kopa) Michelin.

11:15ean, Sporting Herrera-Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Herrera, Donostian.

FUTBOLA 7 I

Larunbata 18

15:00etan, Niasa-Corpa-Estanco Mendizabal (III. Maila) Zubietan.

ARETO-FUTBOLA I

Larunbata 18

HERRIKO TXAPELKETA

Play-off

Michelin edo frontoian

10:00etan, Buenetxea-Ainhua

Kiroldegian

15:00eta, ISU Leihoak-Izarra

16:00etan, Lurra XXI-Jordi

17:00etan, Izkiña -Biyona

Ligila eta kontsolazioa

Michelin edo frontoian

9:10ean, Katanga- Ilargi

10:50ean, Obelix-Siglo XX

11:40ean, Danena-Oria Krist.

12:30ean, Mayi-Okela

13:20ean, Epel-Tragoxka

14:10ean, Viña del Mar-IOB H.K.

Igandea 19

11:00etan, Gorka Pinturas Makax-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Oiardo kiroldegia, Usurbilen.



PALAI

Larunbata 18

XV. PALA TXAPELKETA

Final Laurdenak

Michelingo frontoian

15:00etan, Josu Iparragirre eta

Aitor Maxtain-Iñaki Lizaso eta

Alain Etxebeste

Igandea 19

XV. PALA TXAPELKETA

Final Laurdenak

Michelingo frontoian

09:00etan, Oskar Lazkano eta

Iñigo Arluziaga-Fran Ariztimuño

eta Edu Jauregi

09:45ean, X.Etxezarreta eta

Haritz Urdanpilleta-Imanol

Muxika eta Unai Salaberria

10:30etan, J.Bernaiz Odriozola

eta Santi Martin-Ibon Azkono-

bietia eta Eneko Iradi

SQUASH I

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera

Ostirala 17

Aitor Reyes-Xabier Amiano

J.A. Ramos-Agustin Erkizia

Astelehena 20

Alberto Udabe-Julen Vega

J. R. Urruzola-Txema Valles

Asteartea 21

Diego Barrasa-Aitor Artola;

Xabier Amiano-Iñaki Garcia

Asteazkena 22

Agustin Erkizia-Aitor Reyes

Julen Vega-Jose Antonio Ramos

Osteguna 23

Txema Valles-Alberto Udabe

Iker Cañedo-J. R. Urruzola



PILOTA I

Ostirala 17

XLII. HERRIARTEKO TXAPELKETA

Idiazabalgo frontoian

22:00etan, Idiazabal-Lasarte-

Oria



JUDO A

Larunbata 18

Asteburu osoa, Beñat Elizalde

LOKEko judokak 23 urte azpi-

koen Espainiako txapelketan

parte hartuko du, Madrilan.

BOLA-JOKOA I

Igandea 19

10:00etan, Ostadarreko bolo

sailak Gipuzkoako kopan parte

hartuko du, Hernanin



Herriarteko XLII Eskupilota Txapelketa hastear da

Lasarte-Oriako pilotariak txapelketako lehenengo erronka Idiazabalen dute, gaur 22:00etan

23 herriko pilotariak parte hartuko dute asteburu honetan hasten den Herriarteko Eskupilota Txapelketan eta Lasarte-Oriako ez du hutsik egingo.

Herriko taldearen lehenengo arerioa Idiazabal izango da eta honen etxean lehiatu beharko da gaur 22:00etan. Lasarte-Oriako bikoteak hauek izango dira: kadete mailan, Ander Rekondo eta Unai Delgado; jubeniletan, Jon Peio Artetxe eta Unai Iruarte edo Gorka Mendizabal eta seniorretan, berriz, Aitor Aranburu eta Xabier Arteaga.

Joxe Felix Solano Lasarte-Oriako arduradunarekin hitz egin dugu eta kanporaketa berdindua ikusten du. Hala ere, zera atxiki du, "gutxi eza-gutzen dugun taldea da. Idiazabaleko partidak nola doazen ikusi beharko dugu, etxean apirilaren 25ean lan hobea egiteko."

Iaz lehenengo kanporaketan erori zen herriko taldea Usurbilen aurka eta aurtengorari begira, aurrera eginez gero, Lasarte-Oriak Elgoibarraren aurka izango du lehia zortzirenetan. "Zail ikusten dut aurrera egitea, baina lortzen badugu pausu handia izango litzateke," adierazi digu Joxe Felixek.

Horregatik, 2002aren antzera finalera iristea oso urrun ikusten du Lasarte-Oria-



Herriarteko Eskupilota Txapelketan lehiatuko diren senior eta jubenil bikoteak.

ko arduradunak, "orain dugun taldearekin ez dut aukerarik ikusten. Talde gaztea dugu eta etorkizunean agian."

Hala ere, etorkizuna ere ez dago oso argi. "Oso zaila da talde ona osatzea. Nahiz eta gazteak egun asko entrenatu, gero pilota uzten dute eta honela adin tarte ezberdinetako bikote onak osatzea zail da. Esate baterako, kadete mailan, kadete eta infantil bat lehiatuko dira aurten," aipatu digu Solanok.

Lehiaketa sistema

Txapelketako lehiakideak lau multzotan banatu dira eta

iazko emaitzak kontuan izanirik, 1go kanporaketan edo zortzirenetan hasiko dira jokatzen. Nahiz eta Billabona, Beasain, Zarautz, Orio, Eskoriatza, Urnieta eta Zumarragak huts egin aurten, Albiztur, Anoeta, Zestoa eta Idiazabalek hartuko dute bere lekua. Kanporaketa sistema erabiliko da eta norgehiagoka bakoitzean bi jardunaldi jokatuko dira, bata etxean eta bestea kanpoan.

Finalaurrekoetan egingo dute topo multzo bakoitzeko irabazleek eta, aurtengo txapelketako irabazlea, ekainaren 14ean erabakiko da. •

6 domina eskuratu zituzten LOKEko kadeteak



LOKEko judokak apirilak 4 eta 5ean Gijonera egin zuten Espainiako Sanbo txapelketan parte hartzeko. Gorka Aristegik entrenatutako kadeteak sei dominarekin bueltatu ziren txapelketatik. Kiara Tobajas, Amaia Curiel eta Esteban Martinezek zilarezko postua eskuratu zuten

eta brontzezkoa, berriz, Josu Olmos, Abayuba Gutierrez eta Mario Garridok.

LOKEko entrenatzaileak lehiaketa paregabea egin zutela adierazi digu, "denek egin zituzten oso konbate onak eta hor daude emaitzak. Zorionak guztiei." •

Egunero

Erakusketa

DAVID FERNANDEZ ITURBEREN IKASLEEN LANAK ikusgai apirilaren 15etik 30era, **Kulturetxean 18:00etatik 21:00era.**

Ostirala 17

Bakarrizketa

SANTI CALZADA eta RUBEN ARROSPIDEREN eskutik bakarrizketak. **Naiban tabernan, 23:30ean. Doan.**

Igandea 19

Zinea

BARRIOLA, SAN ADRIANGO AZERIA filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera 3,15 euro. **Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean.**



Asteazkena 22

Hitzaldia

HAUR TIRANOAK. MITOTIK HARAGO hitzaldia eskainiko du haurren osasuna eta prebentzioan aditua den Enkarni Gomezek emango du. **Kulturetxean, 18:00etan.**

Kul is not cool

KUL bakarlariak gitarraren eta oinarri elektronikoen laguntzaz, bere abesti propioak eskaintzen ditu. Pop eta rock elektronikora hurbiltzen den estiloa aurkezten du proiektzio eta musika nahastean dituen emanaldi intimoetan.

GAUR OSTIRALA
MANUEL LEKUONA KULTURETXEKO KAFETEGIAN
GAUEKO 20:00ETAN

Osteguna 23

Zinea

CHE: EL ARGENTINO filmaren emanaldia Okendo Zinema

Taldearen eskutik eta Lasarte-Oriako XI. Jardunaldi Internazionalistekin bat eginez. **Sarrera: 4,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, gaueko 21:30ean.**

Ostirala 24

Proiektzioa

Ttakun K.Eak herriaren laguntzaz antolatutako 7. EUSKARAREN MARATOIKO BIDEOAREN EMANALDIA eskainiko da. **Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan**



Jam Sesioa

Jalgiko JAM SESIOEN XX. SAIOA ospatzeko soul eta jazz entzun ahalako da V.O.S4tet talde gonbidatuaren eskutik. Animatu parte hartzera. **Jalgikafe-antzoakian. 22,30ean.**

IV. Musika Topaketak

Musika klasikoko kontzertua AINHOA MERZERO eta ARIEL CRUZ LAURENCIOREN eskutik. Danok Kidek antolatuta. **Brigintan Komentuan, 19:30ean.**



Liburutegiko ordutegia

Astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!
FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Begirale izateko

Ttakun Kultur Elkarteak udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte.

Interesatuak bide ezberdinak dituzue izena emateko: Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz 943 371448 zenbakira deitu edo mezua bidali aisia@ttakun.com helbidera elektronikora.

Galdutako txaketa

Martxoak 20an marrazki beltzdundu txaketa gris bat galdu nuen Beko Errota edo Kale Nagusia inguruan.

Norbaitek aurkitu badu itzultzea eskertuko nioke. Harremanetarako zenbakia,

tel.: 620 071 384 eta 943 370 438 (Maite)

Lehen Sorospenen ikastaroa

DYA Gipuzkoak antolatuta datorren apirilaren 27an Lehen Sorospen eta sorosle ikastaro berri bati hasiera emango zaio Usturibilean.

Hiru aste iraungo ditu ikastaroak eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da astelehenerdik ostiralera Parrokiko lokaletan (Kale Nagusia 25). Ikastaroa gaindizten duenak, EHUra 2 kreditu jasotzeko aukera izango du.

Matrikularen kostea, ikastarorako txostena barne delarik 90 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzen. Izena emateko edo

informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464622 telefono zenbakira.

Hitzaldia: kooperazioa

Donostiako Udaleko Gazteentzako Informazio Bulegoan gazteek hainbatetan galdetzen duten gaiaren inguruan hitzaldia antolatu da apirilaren 23an, 19:00etan Donostiako Udaleko Udaltza Aretoran: *Kooperante joan nahi duzu?* Hitzaldia: Gipuzkoako GGKEen Koordinakundeak emango du.

CNT-AITren leku aldaketa

CNT-AITk egoitza aldatu du. Orain arte Lasarte-Oriako Golf plazako bulegoa utzi eta hemendik aurrera Donostian izango dira, konkretuki Ferre-

rias plazan (Añoeta futbol zelairen inguruan).

Zentzumen tailerra

Apirilaren 21ean eta 28an, asteartea, Manuel Lekuona kulturetxeko 3. pisuan, liburutegi ondoko gelan Zentzumenak lantzeko tailer bat emango du Idoia Etxegoienek. Tailerra arratsaldeko 18:00etan izango da eta doanik da.

Etorri nahi duen guztia gonbidatuta dago.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Eskutitzak

Munteri AEKren eskerrak herriari

Munteri AEK euskaltegiak eskerrak eman nahi dizkie herritar guztiei, bereziki kulturetxeko ekitaldiak aurrera ateratzeko parte hartu zuten guztiei: Landaberriko dantza garaikideko lagunei, Gure Ametsakoei, Ane Labaka eta Unai Muñoiari, David Egizabal eta Bixente Beltrani, Porrotz eta Marimototsi, ludotekako haurrei, Xumela abesbatzari, eta nola ez, aurkezle izan genuen Maider Seguroari. Halaber, korrika txikian parte hartu zuten ikastetxe eta haurrei, Amarauni; kilometroren bat hartu zuten guztiei; Lasarte-Oriako kaleak giroten ibili ziren Jon Lasa eta Amalur taldeari; sagardoa jarri zuen Soila-enea Sagardotegiari; kamara lanetan izan genituen Isa F. de Agirre, Miel Mari Zelaiari, Txintxarri aldizkariari eta Korrikari laguntza eman dioten denda, taberna eta komertzioei.

Zuen partehartze zuzenik gabe ez zitekeen posible izango Korrikaren festa, eta ezta ere euskararen inguruan hainbeste herritar, zahar eta gazte, biltzea. Korrikaren festa halere, euskarak bizi duen egoeraren erakuslerik onena da, egoera normalizatu batean halakorik ez genukeelako beharko. 2 urte ditugu aurretik hurrengo korrikarako, eta eguneroan kalean euskaraz bizitzea da euskaldun guztion helburua, horrek bermatuko baitu benetan euskararen oraina eta geroa.

Sentitu, pentsatu, ekin, euskaraz!
Aurrera korrika!

Munteri AEK euskaltegia

Udan zer egin pentsatu al duzu gaztetxo?

■ Mendigorriako aterpetxea, KTG kanpaldia edo *Kosta ala kosta* dituzu Ttakun K.E.ak ongi pasatzeko eskaintzen dizkizun aukera paregabeak

Udako oporretan ez dakizutela zer egin? Aspertu egiten zarete? Hainbeste opor egunak nola bete? Hona hemen ideia ezberdin eta interesgarriak.

Urtero bezala Ttakun Kultur Elkarrekin udarako eskaintza zabala antolatu du bere gazte kanpaldien bitartez, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik batxilergora ikasten dutenentzat. Goza ezazu uda!!! Abenturaz abentura! Lelorean aukera zabala eskaintzen da.

Mendigorria LH 3-6

Lehen Hezkuntzako haurrek Mendigorriako aterpetxera joateko aukera dute uztailearen 3tik 14ra.

Irteera honen helburu nagusiak, batetik Lasarte-Oriako 9-12 urte bitarteko haurrei herritik kanpo aisialdiaz euskaraz gozatzeko aukera eskaintzea eta bestetik hiri inguruetatik atera eta ingurune naturalago batean murgiltzeko aukera izatea, elkarlana eta elkarbizitza bultzatuz. Egonaldiak haurren hizkuntza erabilera lantzeko baliagarria izan nahi du ere, hizkuntza ohituretan aurrera pausoak emateko eta euskarako duten jarrera eta motibazioa lantzeko.

Aurtengoan aterpetxea handiagoa da lehenengo urteko eskaera arrakastatsua ikusita. Gainera etxeak berak zerbitzu ugari eskaintzen ditu: igerilekua, futbol zelaia, voleiboleko pista, parke botanikoa...

Bertan antolatuko diren ekintzen artean, mendi irtee-

rak, ur-ekintzak, bizikletarekin irteerak izango dira.

Kanpaldi hauen iraupena 12 egunetakoa izaten da eta haurrek primeran pasatzen dute, baina badirudi motz samarra gelditzen dela eta horregatik aurten berrikuntza bat sartu da.

Honen bitartez nahi izanez gero udaleku itxietako egonaldiaren ondoren udalenez gero udaleku itxietako irekietan jarraitu ahal izango da, haurrek udaleku itxietan egindako lagunekin udaleku irekietan ondo pasatzen jarraitzeko aukera izanik.

Udaleku itxietako prezioa Ttakuneko bazkide ez direnentzat 205 eurotakoa izango da eta Ttakuneko bazkideentzat 185 eurotakoa. Mendigorria + Udako Txokoak hartuz gero Ttakuneko bazkide ez direnentzat 256 eurotakoa eta Ttakuneko bazkideentzat 236 eurotakoa.

Egonaldiaren berri izateko gurasoekin bilera egingo da ekainaren 12an Manuel Lekuona Kultur Etxean arratsaldeko 18:00etan.

KTG Kanpaldia eta Kosta ala kosta

KTG Kanpaldia DBH1, DBH2 eta DBH3ko mailetan dauden ikasleei zuzenduta dago.

Uztailearen 19tik 30a bitartean, Araban hasi, Bizkaian jarraitu eta Kantabria aldera egingo dute herriko gaztetxoek.

Baina ez da guztia ibiltzea izango, ibilbidea zehar ekin-tza ezberdin eta interesgarriak burutuko baitituzte, ur eta abentura kirolak, bibak, mendi ibilbideak edo kontzertua...



Lagun berriak egin, leku berriak eta paregabeak ezagutzeko aukera hori da Ttakuneko kanpaldiek eskaintzen dutena.

“ KTG Kanpaldian eta Kosta ala Kosta beste herrietako gazteekin harremanak sendotu ahalko dituzte

Aurtengoan hemen ere berrikuntzak daude, kanpaldi hauek beste elkarrekin antolatuko baitira, modu honetara Lasarte-Oriako gazteek beste herritako lagun berriak egiteko aukera izango dute.

Guztiz honen berri izateko gurasoekin bilera egingo da ekainaren 19an Manuel Lekuona Kultur Etxean arratsaldeko 18:00etan.

Kosta ala kosta izeneko jarduerak DBH4 eta Batxilergo 1go mailan dauden ikasleei zuzenduta dago.

Ibilbidea Araban hasiko da Garaion, hain zuzen ere, eta Bermeon amaituko da eta

hemen ere ekintza ugari izango dira: ur eta abentura kirolak, bibak, mendi ibilaldiak, gaubekak...

KTGko kanpaldietan bezala beste herritako gazteekin harremanak sendotzeko aukera paregabea izango da.

Guztiz honen berri izateko gurasoekin bilera egingo da ekainaren 19an Manuel Lekuona Kultur Etxean arratsaldeko 19:00etan.

Bai KTG eta bai Kosta ala kosta jardueretako prezioa Ttakuneko bazkide ez direnentzat 225 eurotakoa izango da eta Ttakuneko bazkideentzat 205 eurotakoa.

Izen ematea eta agiriak

Jarduerak hauetarako izen ematea Ttakun Kultur Elkarrekin (Geltoki kalea 4) 943 371 448 telefono zenbakian edo www.ttakun.com web orriaren bitartez egin ahal izango da.

Aurkeztu beharrezko agiriak Osakidetza txartelaren fotokopia, Gipuzkoako kutxan 2101 0048 25 0010089696 kontuan diruzarrera egin izaneko ordainagiria eta nortasun agiriaren fotokopia.

Izena emateko epea maiatzaren 15ean bukatzen da. Anima zaitzete!

“ Udaleku itxien ondoren udaleku irekietan jarraitzeko aukera dago

JUAN IRAOLA
E HIJOS S.L.

ITURGINTZA



ITURGINTZA
GASA

BEROKUNTZA
AIRE GIROTUA



Iñigo de Loiola Kalea 8 behea • administracion@iraola.eu • Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679